OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Udala
Zk./ Nº 2025/1976
Data / Fecha 2025/11/12
DEKRETUA

**Espedientearen kodea:** 2025GB140004
**Espedientearen gaia**: Etxez etxeko laguntzaileak-ABko eskalako ZB azpiekalako eginkizun berezitakoen motako bi plaza betetzeko hautaketa prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda
**Titularra**: Oiartzungo Udala

---

# DEKRETUA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko ekainaren 24an egindako bilkuran, etxez etxeko laguntzaile lanpostuari dagokion administrazio bereziko eskalako zerbitzu bereziak azpieskalako eginkizun berezitakoen motako bi plaza betetzeko hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarriak onartu zituen. Erabakia 2025eko uztailaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (130. zenbakia) argitaratu zen.

Oiartzungo Udalak parte hartzeko eskariak aurkezteko zegokion epea ireki zuen. Aipatu epea agorturik, seigarren oinarrian xedatutakoaren arabera, lehiaketa-oposaketako onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu behar da, baita hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzaileko kideak izendatu eta oposaketa faseko lehen ariketa egiteko data, ordua eta lekua finkatu ere.

Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Ebazpen honen eranskinean agertzen den onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-taulan eta Udaleko web orrialdean (www.oiartzun.eus) argitaratzea.

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaera egin duten pertsonen artean baztertua izan denik ez badago ere, 10 egun balioduneko epea izango dute, parte hartzeko eskaera egin eta onartuen zerrendan onartutako hautagai modura agertu ez diren pertsonek erreklamazioak aurkezteko, bere kasuan.

Behin-behineko zerrenda behin betiko zerrendatzat hartuko da, ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita hamar laneguneko epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Erreklamaziorik aurkeztuko balitz, ebazpen berri batean onartu edo baztertuko litzateke, non behin betiko zerrenda onartuko den. Ebazpen hau ere Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-taulan eta udaleko web orrialdean (www.oiartzun.eus) argitaratuko da.

Bigarrena.- Epaimahai kalifikatzailea osatuko duten pertsonak izendatzea. Hauek izango dira:

Epaimahaiburua:
— Myriam Goikoetxea Zapiain titular gisa, udaleko gizarte zerbitzuetako arduraduna, eta Damiana Muñoz Boza ordezko gisa, Lezoko Udaleko gizarte zerbitzuko arduraduna.

Mahaikideak:
— Marina Martínez Laquente titular gisa, eta Jugatx Garate Arbelaiz ordezko gisa, biak udaleko gizarte langileak.
— Miren Eskarne Astrain Aiestaran titular gisa, eta Maria Josefa Etxeberria Azpiroz ordezko gisa, biak udaleko etxez etxeko laguntzaileak.
— Eva Maria Pérez Cabrera titular gisa, eta Maria Concepción Txoperena Ubiria ordezko gisa, biak udaleko etxez etxeko laguntzaileak.

ESKU71e63b42-54d9-49e5-9e92-d223be8ca258

OIARTZUNGO
UDALA

— Elena Ugartemendia Lekuona titular gisa, eta Maialen Etxeberria Urkia, biak udaleko etxez etxeko laguntzaileak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatutakoak.
— Maiteder Erkiaga Laka, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatua, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egiteko, egoki bada, eta ordezkoa, Katarzyna Maria Piejko-Martinez.
Idazkaria:
— Oihane Mallagaray Revilla titular gisa, udaleko AOT-giza baliabideetako arduraduna, eta Ainhoa Legorburu Ariztegi ordezko gisa, udaleko administraría.

Hirugarrena.- Oposizio faseko lehen ariketa egiteko data, ordua eta tokia zehaztea: 2025eko azaroaren 27an izango da, goizeko 10:00etan, Oiartzungo Udaletxean, 2. solairuan (Done Eztebe plaza, 1). Hautagaiak nortasuna legez egiaztatzen duen dokumentua dutela bertaratu beharko dute.

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua

ESKU71e63b42-54d9-49e5-9e92-d223be8ca258

OIARTZUNGO
UDALA

## ERANSKINA

## ONARTUTAKO BEHIN-BEHINEKO HAUTAGAIEN ZERRENDA

| ABIZENAK ETA IZENA | NA |
|---|---|
| Aguirrezabala Zabala Maria Gemma | ***9799** |
| Apezetxea Mariezkurrena Ainhoa | ***3191** |
| Aramburu Mendizabal Judith | ***8603** |
| Ballesteros Eguiazabal Ainara | ***5589** |
| Celarain Urdampilleta Yosune | ***9776** |
| Elizondo Portugal Itziar | ***8323** |
| Etxeberria Altuna Maria Lourdes | ***9606** |
| Irazusta Arocena Izar | ***8498** |
| Irazusta Echeveste Maria Lourdes | ***5188** |
| Iribarren Sotil Arantza | ***7852** |
| Jimenez Soto Ruben | ***6706** |
| Lasa Legorburu Nagore | ***7623** |
| Miguel Urtizberea Ikerne | ***7526** |
| Murillo Oiartzun Nerea | ***6363** |
| Odriozola Maya Alazne | ***6564** |
| Olague Ansa Maria Victoria | ***0365** |
| Otaegi Etxabe Arrate | ***7331** |
| Santa Cruz Cerain M Nieves | ***9396** |
| Ugalde Artola Margarita | ***4143** |
| Velazquez Martinez Itziar | ***3454** |
| Zapirain Alonso Oihana | ***6413** |
| Zapirain Herce Maider | ***9378** |
| Zugarramurdi Cestau Josefa | ***9004** |

## BAZTERTUTAKO BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

| ABIZENAK ETA IZENA | NA |
|---|---|
| Iturain Mugica Julen (1) | ***1591** |

(1) Eskatutako titulazio akademikorik ez izatea

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2025GB140004-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA) |
|---|---|

Sinatzailea 1 / Firmante 1: JOANA MENDIBOURE  - X3747244S
Data / Fecha: 2025/11/12 14:28:06